

## **BERMEO / Azterketa sasoian, laguntza, denbora eta espazioa**

### **Unibertsitateko ikasleak azterketak prestatzen ari dira asteotan; liburutegiek eta akademiek igarri dute**

Z. ENBEITA / E. GOIENETXEA

Badituzu historiako apunteak? Bai? Atera ditzaket fotokopiak?. Otsaileko azterketak badatozela ikusi eta urduri jartzen da bat baino gehiago. Batzuk ordura arte ez baitira konturatzen unibertsitatean dabiltzanik.

Beste batzuk, ostera, urte osoko lan extra egin behar izaten dute azterketak gainditzeko. Batez ere, zientzietako zenbait karreretan gertatzen da hori. Klase partikularretara joan behar izaten dute. Jose Mari Gorroño aspalditik dabil partikularrak ematen eta bere esanetan, bera ikasle zenean ere era horretako laguntzaren beharrezana izaten zuten.

Batxillerrean dabiltzanak etxean moduan daude. Lehen behintzat. Aldaketa etortzen da unibertsitatera heltzean. Batez ere, ingenieritza moduko karreretan gertatzen da hori. Askok jarraitzeko gogoia ere galtzen dute. Lehenengo lauhilabetekoan galduta ibiltzen direlako. Unibertsitatean ez daukazu inor zure gainean, zer egiten duzun kontrolatzen.

Aldaketa gogorra izaten da eta hori igartzen da akademietan. Gehienak unibertsitateko ikasleak izaten baitira. Enpresa ikasketak egiten dabiltzanak, ekonomia ikasleak, kimika ikasleak, fisika ikasleak, ingenieritza ikasleak... Azkenengo momentuan akademiara jotzen duenik ez da izaten normalean. Hamabostean ezin duzu era horretako ikasgairik prestatu. Lehenengo hilabetean ikusten dute galtzen dabiltzala eta, normalean, orduan jotzen dute akademiara. Urri inguruan hasi eta otsaileko azterketetara arte joaten dira akademiara. Azterketak amaitu ostean beste hainbeste.

Orain kreditoak daudenez, akademietako lana ere aldatu egin da. Garai batean urrian hasi eta ekainera arte ikasgai berbera lantzen zuten. Orain, ostera, lauhilekoetan banatzen dute.

DBH eta Batxilergoko ikasleek ikasketa tekniketara ere jotzen dute, baina ez da hori unibertsitateko ikasleen kasua. Bakoitzak ahal duen moduan egiten du. Batez ere, letretako karreretan.

Hala ere, Latina derrigorrezko ikasgai moduan duten askok klase partikularrak behar izaten dituzte. Ez dago horrelakorik inguruetan eta, beraz, Foruko Frantziskotarrengana jotzen dute ikasle batek baino gehiagok.

Badira ikasteko musikaren beharrezana dutenak. Ohitura kontua omen da. Liburutegian bertan ere mp3-a aldean dutenak asko izaten dira. Azterketa garaian liburutegietan ez dira ikasle guztiak sartzen. Ezin da erreserbatu jartzen duen kartela ere badago Gernika-Lumoko liburutegian. Liburutegia zabaldu orduko ilada luzea egotean da, sartzeko zain.

Bermeoko liburutegian ere nabarmen igo da erabiltzaileen kopurua azken asteotan, unibertsitateko azterketek eraginda. Bertako liburuzainak esan duenez, jende asko joaten da azterketak prestatzera, duela hiru astetik hona, gutxi gorabehera.

Isiltasuna da nagusi goiko solairuetara igotzerakoan, atea irekitzeak ere beldurra ematen du, eskulekuaren kurrinkotsak ikasleen kontzentrazioa etengo duelakoan. Apunte-orriak pasatzerakoan ere entzun daitezke. Batzuek ezin dute liburutegian ikasi, isiltasun gehiegizkoak artega ipintzen dituelako. Beste batzuek, liburutegian txoko bat antolatu behar dute ikasteko baldintza egokiak edukitzeko.